

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Aplikazioa amaiturik dagoenean, aplikazioa merkaturatu beharko dugu. Horretarako, marketing-a erabiliko dugu nagusiki, publizitatea, hain zuzen ere. Publizitatea egiteko, web gune bat eta gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialetan kontuak sortuko ditugu, hots, gure aplikazioaren presentzia nabarmendu eta zabal dezan.

Gure metodoa hasiera batean “muxutruk” izenekoa izango da, hau da, gure inguruko jendea hasiko da erabiltzen aplikazioa, oso erabilgarria delako. Gero, denboraren poderioz, aplikazioa zabaldu egingo da, gure bezeroek beste pertsoneri esango dielako erabiltzeko, hain erreza bait da erabiltzeko, baita doan delako ere.

Bezeorak mantentzeko egin behar duguna aplikazioa doan izatea eta birusik ez edukitzea da. Hori gertatuko ez balitz, bezeroak haserretu eta aplikazioa kendu egingo lukete beraien mugikorretik, eta horrek kalta handiak ekarriko luke gure enpresari.

Jakinda gure aplikazioa Interneten egongo dela, erraza izango da bezero berriak edukitzea, lehenago esan dugun bezala sare sozialetan egongo bait gara eta handik publizitatea eginez, izan daitezkeen bezeroak interesatu egingo dira eta ondorioz gure aplikazioa instalatuko dute.

Bezeroekin harremanak edukitzea funtsezkoa da gure enpresan, berak bait dira erabiliko dutenak eta zerbitzuak eskaini behar dutena. Ez baldin badugu harremanak gure bezeroekin, gure enpresa ezingo du aurrera joan.